

## **Dirulaguntza oinarriak, Euskara eta Kulturartekotasuna lerroaren baitan udaldian euskarazko aisialdiaz gozatzeko jarduera-gastuak ordaintzeko**

### **ARAUDI MARKOA**

Azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, Euskararen erabilera arauzkotzezkoak, bere 5. artikuluan Euskadiko Autonomia Erkidegoko herritar guztiek hizkuntzaren esparruan dituzten eskubide nagusiak xedatzen ditu, eta ondoren, bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren atalburuetan, eskubide horiek bizitza sozialaren esparru guztietara hedatzen ditu. Legeak, halaber, erakunde bakoitzak dituen eskumenen barruan herritarrenganako hizkuntza politika aintzat har dezaten agintzen die herri administrazioei, besteak beste bizitza sozialaren alor guztietan euskararen erabilera sustatuz.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 7.2 artikuluan xedatzen du udalei dagokiela beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatze eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz eta beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz.

Bestalde, 2/2024 Legeak, Haurrena eta Nerabeena, haurren eta nerabeen eskubideen babes integrala helburu duenak, hainbat puntu garrantzitsu azpimarratzen ditu eskubideen arloan. Horien artean, aisialdirako eta jolaserako eskubideari buruz ere berariaz hitz egiten du, eta haurren atxikipen positiboa, garapen osoa eta ongizatea helburu dituzten jarduerak babesten ditu. Adierazten du haurrek adinari egokitutako aisialdi jardueretan parte hartzeko aukera izan behar dutela, garapen pertsonala, soziala eta emozionala sustatzeko. Gainera, ingurune seguru, osasungarri eta inklusiboetan aisialdia bizitzeko eskubidea dutela era azpimarratzen du. Legeak jasotzen duenez, haur guztientzat, aisialdiko eskaintza zabala, anitza eta irigarria bermatzeko betebeharra dute administrazio publikoek. Horretarako eskola-orduetatik kanpoko jarduerak bultzatu behar dituzte, hezkidetza, kultura-aniztasuna, jasangarritasuna eta berdintasuna kontuan hartuta.

2023ko abenduaren 21ean, Eskoriatzako Udalaren 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen. Plan horretan ildo estrategikoak jasotzen dira, eta horietako bosgarrena "Euskara" izenekoa da.

Lerro honen C ekintza Euskara eta Kulturartekotasuna udalekuetan izeneko dirulaguntza da, helburua honako hau duena: *gizarteratze soziokulturean*



*trebatzeko beharra duten hurrei eskola garaitik kanpo aisialdian parte-hartzeko bitartekoak eskaintzea.*

## AURREKARIAK

Azken 15 urteetan HH-n eta LH-n dauden eta adinari dagokion euskara mailarik ez duten eskoriatzarrei hizkuntza errefortzua eskaini zaie Tortolis ludotekan eta udalekuetan. Errefortzu zerbitzurako sarbidea, udalak espezetan emandako dirulaguntza bitartez bermatu izan da.

2024. urtearen erdialdean Eskoriatzako Udalak eta Huhezi fakultateak lankidetzan Euskara eta Kulturartekotasuna egitasmoa abiatu zuten, eta herriko ikastetxeak zein bestelako eragileak gonbidatu zituzten egitasmoan parte-hartzera.

2025. urtean udalak dirulaguntza lerro berria ireki zuen, hain zuzen ere Euskara eta Kulturartekotasuna lerroaren baitan euskara sendotu eta gizarteratze beharra duten herriko hurrek, aisialdian parte-hartzeko laguntza arautzeko.

Orain arte egindako bidea aberatsa da, eta euskara eta kulturartekotasuna oinarri dituen ekosistema eraikitzeko oinarri sendoak jarri dira.

Horregatik guztiagatik, eta Udalaren dirulaguntza emanez lortu nahi den interes publikoa eta Udalaren dirulaguntza jarduerak bete behar dituzten printzipioak (hala nola publizitatea, gardentasuna, konkurrentzia, objetibotasuna, berdintasuna, diskriminazio eza, eragingarritasuna eta eraginkortasuna) betetzea bermatzeko, oinarri hauek egin dira, parte hartzen duten udal organoen eta dirulaguntzen onuradun izan litezkeen pertsonen eskubideak eta betebeharrek arautzen dituen markoa juridikoa zehazteko. Eta behar den publizitatea emango zaio dokumentuari, inplikaturik dauden alde guztiek horren berri izan dezaten.

## OINARRIAK

### **1.- Helburua.**

Oinarri hauen helburua da udal udalekuetan matrikula kostuari aurre egiteko dirulaguntzen baldintzak arautzea, lehen hezkuntzan matrikulatuta dauden hurrek euskararen ezagutza areagotzeko, eta haien gizarteratze soziokulturala errazteko.

### **2.- Organo eskuduna.**



Oinarri hauek onartzeko organo eskuduna Alkatea da (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.e artikuluan aurreikusitakoaren arabera).

### **3.- Araudi aplikagarria.**

Oinarri hauek eta dirulaguntzak ematerakoan indarrean dauden gainerako arauak arautuko dituzte dirulaguntza hauek eta baita onuradunaren eta erakunde emailearen arteko harreman juridikoa ere.

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetarako honako hauek aplikatuko dira:

- Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzen duen Ordenantza Orokorra (GAO 85. zenbakia, 2021eko maiatzaren 10a)
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (Estatuko Boletín Ofiziala: 2003-11-18) eta lege hori garatzeko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaz onartutako Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu orokorra.

### **4.- Erregimena.**

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak laguntza-izaera berezia dute, gizarteratze soziokulturalean trebatzeko beharra duten haurrek udaldiko euskarazko aisialdirako sarbidearen bitartez euskararen erabilera areagotzea eta ahien gizarteratzea erraztea baitute helburu. Hori horrela, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 22.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, ebaluazio bakoiztu erregimenean emango dira.

Hala, aurkeztutako eskaeren artean alderatutako baloraziorik egiteko aukerarik ez dago, eta, aurrekontu kontsignazioarena ez bada, beraien artean ezin da beste harreman elementurik ezarri.

### **5.- Diru izendapena.**

Aurrekontu izendapena 2.000 eurokoa da, eta 2026ko honako aurrekontu-aplikazioaren kargura finantzatuko da: 0400.480.335.40.01

Izendatutako aurrekontu zuzkidura ez bada nahikoa dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten eskaera guztiei aurre egiteko, dagokion diru gehikuntza egin ahal izango da udal aurrekontua exekutatzeko oinarrietan aurreikusitako kreditu aldaketan bidez.



Aurrekontu-kreditua gehitzeko eta hasierako zuzkidura handitzeko, ez da beharrezkoa izango deialdia berriro argitaratzea.

#### **6.- Diruz laguntzen diren jarduerak.**

Diruz lagunduko da Eskoriatzako udal udalekuetan matrikula-gastuak %100ean.

#### **7.- Dirulaguntzaren zenbatekoa.**

Dirulaguntzen onuradun bakoitzari udal udalekuetako matrikula-gastuaren %100eko dirulaguntza emango zaio.

Jasotako eta onartutako eskabideen bolumenak ez badu ahalbideratzen eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskabide guztien matrikula-gastuen %100 estaltzea aurrekontu-zuzkidura handitu ahal izango da, udal-aurrekontua gauzatzeko oinarrietan kredituak aldatzeko aurreikusitako mekanismoen bidez; horretarako, ez da beharrezkoa izango deialdia berriro argitaratzea.

#### **8.- Onuradunak eta baldintzak.**

**Onuradunak:** 2025-2026 ikasturtean beraien tutoretzapean Eskoriatzako ikastetxe batean LH-n matrikulatutako adingabeak dituzten pertsonak.

##### **Baldintzak:**

- Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, adingabeak eta tutoreek Eskoriatzan erroldatuta egon beharko dute eta adingabeak Eskoriatzako ikastetxe batean matrikulatuta egon beharko du.
- Adingabeak eta tutoreek Dirulaguntzei buruzko 38/2023 Lege Orokorraren 13.artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.
- Haurren bizikidetza unitateko kide guztiek egunean egon beharko dute udal tasen, zehapenen eta zergen ordainketan.
- Haurrak 2025-2026 ikasturtean Eskoriatzako udalerriko ikastetxe baten matrikulatuta egon beharko du, LH1-LH6 artean. Gainera, ikastetxeak dirulaguntza honen jasotzaile gisa identifikatuta izan beharko du.
- Haurra 2025-2026 ikasturtean Euskara eta Kulturartekotasuna aisialdian dirulaguntzaren erabiltzaile izan bada, ikasturte osoko asistentzia gutxienez %75ekoa izan beharko zen.

#### **9.- Dirulaguntzak eskatzeko modua eta epea.**

Eskaerak eredu normalizatuaren arabera eta sinatuta aurkeztu beharko dira, modu presentzialean edo telematikoan.



Modu presentzialean astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:30era udaletxeko H@Zi zerbitzuan.

Modu telematikoan eguneko 24 orduetan, asteko 7 egunetan, Eskoriatzako Udalaren egoitza elektronikoan ([www.eskoriatza.eus](http://www.eskoriatza.eus)) "Tramiteak" atalean. (<https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/home.do?De=EU034124674>)

Eskaerak aurkezteko azkeneko eguna, maiatzaren 28a izango da.

Eskaera orriarekin batera, eskatzaileek ondorengoak egiaztatu beharko dituzte:

- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
- Ez duela hasita edo tramitean administrazioari dirua itzultzeko inolako prozedurarik.
- Ez duela jarduera bererako beste dirulaguntzarik eskatu. Eskatu badu, horri buruzko dokumentazio espezifikoa aurkeztu beharko da.
- Ez duela sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean dagoen eta aplikatu beharrekoa den araudia urratzeagatik administrazio-zigorrik, ez zigor penalik.
- Bere xede edo helburuak ez direla emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak.
- Ez duela 38/2003 Legearen 13.2 eta 13.3 ataletan jasotako debekurik.

Eskatzaileari jakinarazten zaio Eskoriatzako Udalak zuzenean egiaztatuko dituela onuradunen betekizunak, datuen bitartekaritza-plataformak eta beste administrazio batzuek dituztenak erabilia.

#### **10.- Beste laguntza batzuekin bateragarritasuna.**

Laguntza honek jarduera kostuaren %100 estaliko duenez, ez da bateragarria izango helburu bererako bestelako dirulaguntzekin.

Udalak jakingo balu eskatzaileak helburu bererako beste dirulaguntzaren bat jaso duela, emandako laguntza itzultzeko prozedura hasiko du.

#### **11.- Dirulaguntzak emateko prozedura.**



Dirulaguntzak emateko prozedura ofizioz hasiko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den alkate erabakiz onartutako deialdiaren bidez.

Dirulaguntzak emateko prozedura ebaluazio bakoiztu bidez tramitatuko da.

Ebazpena gehienez ere hiru hilabeteko epean emango da, eskabidea udaletxeko erregistroan sartzen den egunetik aurrera.

Epe hori igarota, Udalak ez badu eskabideren bati buruzko ebazpenik eman, eskaera ez dela onartu ulertuko da

## **12.- Datuen babesa.**

Dirulaguntzaren izaera berezia dela eta, onuradunek ez dute dirulaguntza jaso izanaren publizitaterik egin beharko.

Deialdi honetako dirulaguntzak nori eman zaizkion argitaratzeak ekar dezake pertsona fisikoen ohorea, intimitate pertsonal zein familiarra edo norberaren irudia ez errespetatzea edo babestea; horregatik, pertsonen ohore, intimitate eta irudiaren babes zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Legean ezarritakoa betetzeko, ez da argitaratuko nori eman zaizkion dirulaguntzak.

Dirulaguntzaren eskabidea aurkezteko unean, eskatzaileak deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela adierazten du, eta osorik onartzen ditu. Era berean, adierazten du eskabidean jasotako datu pertsonalak bere baimenarekin jaso direla, eta onartzen du datu horiek automatizatuta tratatzea eta Eskoriatzako Udalaren hainbat fitxategitan sartzea, datu horiek Udalaren gestioetarako soilik erabiliz. Datu horiek beste administrazio publiko batzuei edo hirugarrenei laga edo komunikatu ahal izango zaizkie, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan aurreikusitako kasuetan.

## **13.- Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria.**

Eskabideak akatsik izanez gero edo osatugabeak badira, interesdunari, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluan jasota bezala, hamar eguneko epea emango zaio antzemandako akatsak konpontzeko. Eta ohartaraziko zaio epea igarota horrelakorik egin gabe, eskariari uko egin diola ulertuko dela, Lege horretako 21 artikuluan aurreikusitako moduan.

Aurkeztutako eskaera egoki ebaluatu eta erabaki ahal izateko, beharrezkotzat jotzen den behar beste dokumentu eta informazio osagarri eskatu ahal izango dira.

## **14.- Prozedura agintzeko eta instruitzeko organo eskudunak.**

1. Dirulaguntzetarako deialdia egitea Alkate-Udalburuari dagokio, eta horrek hartutako erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.



2. Dirulaguntzak emateko prozedura instruitzea Euskara teknikariari dagokio, eta erabaki proposamena egiteko datuak zehazteko, horiek ezagutzeko eta egiaztatzeko egoki iritzitako behar besteko jarduketa egingo ditu ofizioz.
3. Ebaluazioa egin ondoren euskara teknikariak txosten teknikoa eta ebazpen proposamena egingo du.
4. Instruktoarearen proposamena batzorde informatzaileak aztertuko du eta erabakia hartuko duen organoari, hau da alkateari, ordainketa proposamena egingo dio.
5. Alkate ebazpena.

### **15.- Dirulaguntza emateko erabakia.**

Oinarri hauetan aurreikusitako dirulaguntzak erabakitzeko organo eskuduna Alkatea da.

Orokorrean, dagokion erabakiak hartu eta horiek argitaratu edo jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da. Epe hori eskaera aurkezten den egunaren biharamunetik hasiko da kontatzen.

Edozein modutan ere, epea igaroz gero erabakia jakinarazi edo argitaratu gabe, eskaera administrazio-isiltasunez ezetsi dela ulertu beharko da.

Erabakiak administrazio bidea agortzen du.

Prozeduraren erabakia interesdunei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko 39/2015 Legeko 40. artikuluan ezarritakoaren arabera; eta jakinarazpena aipatutako legeko 41. artikuluko xedapenetan ezarritako moduan egingo da. Hori guztiori, emandako dirulaguntzak Eskoriatzako Udalaren webgunean argitaratzearen kaltetan gabe, beti ere oinarri hauen 13.puntuan jasotako anonimotasun printzipioa errespetatuz.

### **16.- Onuradunaren betebeharrak.**

Adin txikikoak diruz lagundutako jardueretan %75eko asistentzia izan beharko du. Hala izan ezean, antzekoak edo berdinak diren beste laguntza batzuk eskuratzeko eskubidea galduko du.

### **17.- Emandako dirulaguntzaren ordainketa.**

Matrikula errazago ordaintzeko, endosu formula hau erabiliko da:

1. **Aurkezpena:** onuradunak Endosu eskabidea egin beharko du dirulaguntzaren eskabidearekin batera. Dokumentu horretan, onuradunak (endosatzailea)



dirulaguntza kobratzeko eskubidea Prestakuntza Erakundeari (endosarioa) lagatzen dio.

2. **Onartzea:** prestakuntza-erakundeak, endosua sinatuz, lagapena onartzen du eta bere gain hartzen du ikaslearen matrikula justifikatzeko erantzukizuna.
3. Ikastaroa egin ondoren, prestakuntza-erakundeak ikaslearen aprobetxamenduaren edo bertaratzearen azken ziurtagiria aurkeztu beharko du, udalarekin adostutako epean. Ziurtagiri horretan, gutxienez, honako hauek jasoko dira: adingabearen izen-abizenak, egindako jarduera, parte-hartzearen aprobetxamendua eta matrikularen kostua.
4. **Ordainketa:** jarduera egin dela justifikatu ondoren, prestakuntza-erakundeari egingo zaio dirulaguntzaren ordainketa.
5. **Ondorioa:** endosarioari egindako ordainketak administrazioa jatorrizko onuradunarekiko zorretik askatzen du.

#### **18.- Oinarriak interpretatzea.**

Oinarri hauek interpretatzerakoan, aplikatzerakoan edo horien ondorioetarako zalantzarik izanez gero, Alkateak erabakiko du Kultura, euskara, gazteria eta hezkuntza batzorde informatzaileak aurrez txostena eginda.

#### **19.- Garapena eta exekuzioa.**

Oinarri hauek exekutatu ahal izateko behar beste erabaki hartzeko ahalmena ematen zaio Alkate-Udalburuari.

#### **20.- Indarrean jartzea.**

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean izango dira indarrean.



## **Bases para la concesión de subvenciones en el programa “Euskara eta Kulturartekotasuna”, destinadas a financiar actividades de ocio y tiempo libre en euskera en periodo estival**

### **MARCO LEGAL**

La Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera establece en su artículo 5 los derechos fundamentales de que gozan toda la ciudadanía de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia lingüística, y, a continuación, en los capítulos segundo, tercero, cuarto y quinto hace extensivos dichos derechos a todos los ámbitos de la vida social. La ley, así mismo, dispone la obligación de todas las administraciones públicas a respetar, dentro de las competencias de cada institución, la política lingüística hacia la ciudadanía y promover, entre otras cosas, el uso del euskera en todos los ámbitos de la vida social.

La Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, establece en su artículo 7.2 que corresponde a los ayuntamientos la competencia para promover el conocimiento y dinamizar el uso del euskera en su ámbito territorial, organizando directamente los servicios y actividades para ello y colaborando en la financiación de las actividades que otras personas o entidades lleven a cabo para la promoción y dinamización del euskera.

Por su parte, la Ley 2/2024 de Infancia y Adolescencia, cuyo objetivo es la protección integral de los derechos de la infancia y la adolescencia, incide en varios puntos importantes en materia de derechos. Entre ellos, también habla expresamente del derecho al ocio y al juego y apoya actividades que persiguen la adhesión positiva, el desarrollo integral y el bienestar de las personas menores de edad. Indica que los niños y las niñas deben poder participar en actividades de ocio adaptadas a la edad para fomentar su desarrollo personal, social y emocional. Además, subraya el derecho a vivir el tiempo libre en entornos seguros, saludables e inclusivos. La ley recoge la obligación de las administraciones públicas de garantizar una oferta de ocio amplia, variada y accesible para todos los niños y las niñas. Para ello deben impulsar actividades fuera del horario lectivo, teniendo en cuenta la coeducación, la diversidad cultural, la sostenibilidad y la igualdad.

Con fecha 21 de diciembre de 2023 quedó aprobado el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Eskoriatza 2024-2027. En dicho Plan se recogen las diferentes líneas estratégicas, siendo la quinta la denominada “euskera”.

La acción C “Euskera e interculturalidad en las colonias de verano” de esta línea son las subvenciones que tienen como objeto *“ofrecer medios para la participación en el*



*ocio fuera del periodo escolar a niños y niñas que requieren apoyo para su inclusión sociocultural”.*

## **ANTECEDENTES**

En los últimos 15 años se ha ofrecido refuerzo lingüístico en la ludoteca Tortolis y en las colonias de verano un refuerzo lingüístico a aquellos eskoriatzarras matriculados en educación infantil y primaria que no tenían el nivel de euskera correspondiente a su edad. El acceso al servicio de refuerzo se ha garantizado mediante subvención municipal en especie.

A mediados del año 2024, el Ayuntamiento de Eskoriatza y la facultad Huhezi iniciaron en colaboración el proyecto Euskara eta kulturartekotasuna, e invitaron a los centros escolares y otros agentes de la localidad a participar en el proyecto.

En el año 2025 el ayuntamiento abrió una nueva línea de subvenciones, dentro de la línea de Euskera e Interculturalidad, que regulan las ayudas para participar en el tiempo libre a los niños y niñas que requieren apoyo para su inclusión sociocultural.

El recorrido realizado hasta ahora ha sido fructífero, y se han puesto bases sólidas para construir un ecosistema en el que los fundamentos sean el euskera y la interculturalidad.

Por todo ello, y con el fin de garantizar el cumplimiento del interés público perseguido con la concesión de la subvención municipal y de los principios que deben regir las actividades subvencionales del Ayuntamiento, tales como la publicidad, la transparencia, la concurrencia, la objetividad, la igualdad, la no discriminación, la eficiencia y la eficacia, se elaboran las presentes bases para determinar el marco jurídico que regula los derechos y obligaciones de los órganos municipales participantes y de las personas que pudieran resultar beneficiarias de las subvenciones. Se dará la publicidad necesaria al documento para conocimiento de todas las partes implicadas.

## **BASES**

### **1.- Objeto.**

Es objeto de estas bases regular las condiciones de subvención para hacer frente al costo de la matrícula en las colonias municipales de verano, que permitan a los niños



y las niñas matriculados en primaria en los centros escolares de Eskoriatza, incrementar su conocimiento del euskera y facilitar su integración sociocultural.

## **2.- Órgano competente.**

El órgano competente para la aprobación de las presentes bases es el alcalde (de conformidad con lo dispuesto en el artículo 22.2 e) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local).

## **3. - Normativa aplicable.**

La concesión de estas ayudas y la relación jurídica entre la persona beneficiaria y la entidad otorgante se regirá por las presentes bases y demás normativas vigentes en el momento de su concesión.

En todo lo no previsto en las presentes bases, será de aplicación:

- Ordenanza General reguladora del régimen de subvenciones del Ayuntamiento de Eskoriatza (BOG nº85, del 10 de mayo de 2021)
- Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones públicas.
- Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (Boletín Oficial del Estado 18-11-2003) y el Reglamento General de subvenciones aprobado por Real Decreto 887/2006 de 21 de julio.

## **4.- Régimen.**

De conformidad con lo establecido en el artículo 22.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, las ayudas a las que se refieren las presentes bases serán resueltas mediante el procedimiento de concesión en régimen de evaluación individualizada, dada la naturaleza excepcional de estas ayudas que pretende incrementar el uso del euskera y facilitar la integración sociocultural haciendo que los niños y las niñas que lo necesiten participen en actividades de ocio en verano.

No existe posibilidad de efectuar una valoración comparativa entre las solicitudes que se presenten, no pudiendo establecerse otro elemento de relación entre sí que el de la consignación presupuestaria.

## **5.- Asignación económica.**



La dotación presupuestaria es de 2.000 euros, y se financiará con cargo a la aplicación presupuestaria 0400.480.335.40.01 del año 2026.

Si la dotación presupuestaria no alcanzara a cubrir el total de solicitudes con derecho a ayuda, se podrá proceder a su correspondiente ampliación a través de los mecanismos de modificación de crédito previstos en las bases de ejecución del presupuesto municipal.

La ampliación del crédito presupuestario y el aumento de la dotación inicial no requerirá de nueva publicación de la convocatoria.

#### **6.- Actividades subvencionables.**

Se subvencionarán al 100% los gastos de matrícula de los udalekus municipales de Eskoriatza.

#### **7.- Cuantía de la subvención.**

Se subvencionará a cada persona beneficiaria el 100% del gasto de matrícula de los udalekus.

En el caso de que el volumen de solicitudes recibidas y admitidas no permita cubrir el 100% de los gastos de matrícula de todas las solicitudes que cumplan los requisitos exigidos, se podrá incrementar la dotación presupuestaria mediante los mecanismos de modificación de créditos previstos en las bases de ejecución del presupuesto municipal, sin que para ello sea necesaria una nueva publicación de la convocatoria.

#### **8.- Personas beneficiarias y requisitos.**

**Personas beneficiarias:** personas que ejerzan la tutoría de personas menores matriculadas en primaria durante el curso escolar 2025-2026 en un centro escolar de Eskoriatza.

##### **Requisitos:**

- En la fecha de finalización de presentación de solicitudes tanto el/la menor como las personas que ejerzan la tutoría deberán de estar empadronadas en el municipio de Eskoriatza, y el/la menor deberá estar matriculada en un centro escolar de Eskoriatza.
- Cumplir con los requisitos establecidos en el art. 13 de la Ley 38/2023, General de Subvenciones, tanto el/la menor como sus tutores o tutoras.



- Todas las personas de la unidad convivencial de la persona menor deberán estar al día en el pago de tasas, sanciones e impuestos municipales.
- La persona menor deberá estar matriculada en cualquier curso de primaria (LH1-LH6) en el curso escolar 2025-2026, en algún centro de enseñanza del municipio de Eskoriatza. Además, deberá ser identificado por el centro escolar como posible beneficiaria de esta ayuda.
- Si el niño o la niña ha sido usuario o usuaria de la subvención Euskera e Interculturalidad en el tiempo libre durante el curso 2025-2026, la asistencia durante todo el curso deberá de ser al menos del 75%.

### **9.- Forma y plazo de presentación de las solicitudes de subvención.**

Las solicitudes, junto con la documentación correspondiente, podrán presentarse de forma presencial o telemática, firmadas y según modelo normalizado.

De forma presencial de lunes a viernes, de 9:00 a 13:30 horas en el Servicio H@ZI del ayuntamiento.

De forma telemática las 24 horas del día, los 7 días de la semana, en la sede electrónica del Ayuntamiento de Eskoriatza, [www.eskoriatza.eus](http://www.eskoriatza.eus), en el apartado "Trámites". (<https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/home.do?De=EU034124674>).

El plazo para presentar las solicitudes finalizará el 28 de mayo.

Junto a la solicitud, se deberá de acreditar lo siguiente:

- Estar al corriente en sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.
- No hallarse incurso en ningún proceso de devolución económica ante la administración.
- No haber solicitado otra subvención para la misma actividad. En caso de haberla solicitado, deberá presentar documentación específica al respecto.
- No haber recibido sanción administrativa o penal por discriminación sexual o por infringir la normativa vigente y aplicable en materia de igualdad entre hombres y mujeres.
- Que sus fines y objetivos no son contrarios al principio de igualdad entre mujeres y hombres.
- Que no está incurso en ninguna de las causas de prohibición de los artículos 13.2. y 13.3 de la Ley 38/2003.



Se informa a la persona solicitante que el Ayuntamiento de Eskoriatza comprobará directamente los datos de los requisitos establecidos desde la plataforma de intermediación de datos y otras administraciones.

#### **10.- Compatibilidad con otras ayudas.**

Dado que esta ayuda cubrirá el 100% del coste de la actividad, no será compatible con otras subvenciones para la misma finalidad.

Si el Ayuntamiento tuviera conocimiento de la obtención de otras subvenciones o ayudas para la misma finalidad, iniciará el procedimiento de reintegro de la ayuda concedida.

#### **11.- Procedimiento de concesión.**

El procedimiento de concesión se iniciará de oficio, mediante convocatoria aprobada por Resolución de la Alcaldía publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

El procedimiento de concesión de las subvenciones se tramitará mediante evaluación individualizada.

La resolución se dictará en el plazo máximo de tres meses desde la fecha de entrada de la solicitud en el registro del Ayuntamiento.

Transcurrido dicho plazo sin que el Ayuntamiento haya dictado resolución alguna, se entenderá desestimada la solicitud.

#### **12.- Protección de datos.**

Dada la especial naturaleza de la subvención, no será necesaria la publicidad de la misma por parte de los beneficiarios.

La publicación de las subvenciones previstas en la presente convocatoria puede implicar la falta de respeto o protección del honor, intimidad personal y familiar o imagen personal de las personas físicas, por lo que, en cumplimiento de lo establecido en la Ley 1/1982, de 5 de mayo, sobre Protección Civil del Honor, la Intimidad y la Imagen de las Personas, no se dará publicidad a las subvenciones concedidas.

En el momento de presentar la solicitud de subvención, el solicitante declara cumplir todos y cada uno de los requisitos establecidos en la convocatoria y acepta íntegramente la misma. Asimismo, declara que los Datos Personales recogidos en la solicitud han sido recogidos con su consentimiento, aceptando que dichos datos



sean objeto de tratamiento automatizado e inclusión en diversos ficheros del Ayuntamiento de Eskoriatza debidamente autorizados, aceptando que dichos datos sean utilizados exclusivamente para las gestiones del Ayuntamiento. Estos datos podrán ser cedidos o comunicados a otras Administraciones Públicas o a terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal y de Garantía de Derechos Digitales.

### **13.- Subsanación de defectos y documentación complementaria.**

Si las solicitudes fueran defectuosas o incompletas, se requerirá al interesado para que en el plazo de diez días subsane los defectos observados, de conformidad con el artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre. Y se le advertirá que transcurrido dicho plazo sin que lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, en los términos previstos en el artículo 21 de la citada Ley.

Podrá requerirse cuanta documentación e información complementaria se considere necesaria para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada.

### **14.- Órganos competentes para la ordenación e instrucción del procedimiento.**

1. La convocatoria de las ayudas corresponderá al Alcalde-Presidente mediante Resolución publicada en el Boletín Oficial del Gipuzkoa.
2. La instrucción del procedimiento de concesión de subvenciones corresponde a la técnico municipal de euskera, quien realizará de oficio cuantas actuaciones estime necesarias para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales debe formularse la propuesta de resolución.
3. Una vez realizada la valoración, informe técnico de la técnico de euskera con respecto a las solicitudes y propuesta de resolución.
4. La propuesta del instructor será presentada a la comisión informativa correspondiente, que elevará propuesta de resolución al órgano correspondiente, que será el alcalde.
5. Resolución de Alcaldía.

### **15.- Resolución de concesión.**

El Alcalde será el órgano competente para resolver la concesión de las subvenciones contempladas en estas bases.

Con carácter general, el plazo máximo para dictar y publicar o notificar la resolución que corresponda será de tres meses. El plazo se computará desde el día siguiente a la presentación de la solicitud.



En todo caso, transcurrido el correspondiente plazo sin haberse notificado o publicado la resolución, se entenderán desestimada la solicitud por silencio administrativo.

La resolución pone fin a la vía administrativa.

La resolución del procedimiento se notificará a los interesados de conformidad con lo previsto en el artículo 40 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, y su práctica se ajustará a las disposiciones contenidas en el artículo 41 de la citada ley. Todo ello sin perjuicio de la publicación de las subvenciones concedidas en la página web del Ayuntamiento de Eskoriatza, respetando siempre el principio de anonimidad recogido en el punto 13 de estas bases.

#### **16.- Obligaciones del beneficiario.**

La persona menor deberá tener una asistencia mínima del 75% en las actividades subvencionadas. En caso contrario, podrá perder el derecho a obtener la condición de beneficiario de subvenciones de igual o similar naturaleza.

#### **17.- Pago de las subvenciones.**

Con el objetivo de facilitar el pago de la matrícula, se establece el pago a través de la siguiente fórmula de endoso:

1. **Presentación:** las personas beneficiarias deberán cursar solicitud de Endoso junto con la solicitud de subvención. En este documento, la persona beneficiaria (endosante) cede su derecho al cobro de la subvención a la Entidad Formativa (endosatario).
2. **Aceptación:** la Entidad Formativa, mediante la firma del endoso, acepta la cesión y asume la responsabilidad de justificar la matrícula del alumno o alumna.
3. Realizado el curso, la entidad formativa deberá presentar un certificado final de aprovechamiento o asistencia de la alumna o el alumno dentro del plazo acordado con el ayuntamiento, en el que se hará constar como mínimo: nombre y apellidos de la persona menor, actividad realizada, aprovechamiento de la participación y coste de la matrícula.
4. **Pago:** una vez justificada la realización de la actividad, el pago de la subvención se emitirá a favor de la entidad formativa.



5. **Efecto:** el pago al endosatario libera a la administración de la deuda con el beneficiario original.

#### **18.- Interpretación de las Bases.**

Cualquier duda que pudiera surgir en la interpretación, aplicación y efectos de las presentes Bases, será resuelta por la Alcaldía, previo informe, en su caso, de la Comisión Informativa de cultura, euskera, juventud y educación.

#### **19.- Desarrollo y ejecución.**

Se faculta al Alcalde-presidente para dictar cuantos acuerdos sean necesarios para la ejecución de estas Bases.

#### **20.- Entrada en vigor.**

Estas bases entrarán en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.



**ERANSKINA  
ESKAERA ORRIA**

**EUSKARA eta KULTURARTEKOTASUNA  
DIRULAGUNTZA ESKAERA**

Solicitud de subvención para programa Euskara y Multiculturalidad

<b>IZEN-ABIZENAK</b> / Nombre y apellidos	<b>NAN</b> / DNI

**Orri hau beste baten izenean betez gero, idatzi horren datuak ere ondorengo taulan:**  
En caso de formalizar este escrito en nombre de un tercero, rellenar los siguientes datos

<b>ZEINEN IZENEAN</b> / En nombre de quién	<b>NAN / IFK</b> DNI/CIF

**Jakinarazpena bidaltzeko datuak** / Datos para envío de notificaciones:

<b>HELBIDEA</b> / Dirección	<b>HERRIA</b> / Población	<b>PK / CP</b>
<b>TFNO. FINKOA</b> / Tfno. fijo	<b>TFNO. MUGIKORRA</b> / Tfno. móvil	<b>E-maila</b>
<b>Nola jaso nahi duzu jakinarazpen</b> <input type="checkbox"/>	<b>Paperean</b> <input type="checkbox"/>	<b>Egoitza elektronikoan</b> (* ikusi oharra)
¿Cómo quiere recibir la notificación?	En papel	En la sede electrónica (* ver nota)

\* Oharra: **Jakinarazpena egoitza elektronikoan jasotzeko, beharrezkoa da ziurtagiri digitala edo B@kQa izatea.**  
Nota: Para recibir la notificación en la sede electrónica es necesario tener certificado digital o B@kQ

<b>ESKAERA / Solicitud</b>	
<p>Orrri honen bitartez <b>adierazten du</b> bere semeak/alabak aisialdiko euskarazko ekintzetan parte-hartzeko iradokizuna egin diola ikastetxeak, eta horretarako Udalak ematen duen laguntzaren informazioa jaso duela.</p> <p>Hori horrela, idatzi honen bitartez <b>eskatzen du</b> bere semeak/alabak adierazitako aisialdi ekintzan parte-hartzeko dirulaguntza ematea.</p>	<p>Mediante este escrito <b>manifiesta</b> que el centro escolar en el que está matriculado su hijo/hija le ha indicado la conveniencia de que participe en actividades de ocio y tiempo libre en euskara y ha recibido información de la ayuda que ofrece el ayuntamiento.</p> <p>Por ello, mediante la presente <b>solicita</b> le sea concedida la subvención para participar en la actividad indicada en esta solicitud.</p>



### UMEAREN DATUAK / Datos del/de la menor

**IZEN-ABIZENAK:**

Nombre y apellidos:

**ADINA:**

Edad

**IKASTETXEA:**

Centro escolar:

**MAILA:**

Curso:

### ENDOSO BAIMENA / Pago por endoso

Baimena ematen diot Eskoriatzako Udalari dirulaguntza onartutakoan, ordainketa zuzenean dagokion elkarteari egiteko.

Autorizo al Ayuntamiento de Eskoriatza a que abone la subvención aprobada directamente a la entidad organizadora de la actividad

 BAI /SI EZ/NO

### ZINPEKO AITORPENA / Declaración jurada

**Eskatzaileak (edo berak ordezkatzten duen erakundeak edo pertsonak):**

El/la solicitante (o en su caso, la persona o entidad a la que representa):

- Egunean al ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak?

¿Se encuentra al corriente en sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social?

 **Bai / Sí** **Ez / No**

- Ba al du hasita edo tramitean dirua itzultzeko inolako prozedurarik Euskadiko Administrazio Orokorrean eta bere organismo autonomoetan, beraiengandik jasotako dirulaguntzen eremuan?

¿Se halla incurso en algún proceso de devolución económica ante la Administración General del País Vasco y sus organismos autónomos, en el ámbito de las subvenciones recibidas de ellos?

 **Bai / Sí** **Ez / No**

- Beste inongo erakundetean eskatu al du dirulaguntzarik jarduera horretarako?

¿Ha solicitado a alguna otra entidad subvención para llevar a cabo las actividades mencionadas?

 **Bai / Sí** **Ez / No**

- Sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean dagoen eta aplikatu beharrekoa den araudia urratzeagatik, jaso al du administrazio-zigorrik edo zigor penalik?

¿Ha recibido alguna sanción administrativa o penal por discriminación sexual o por infringir la normativa vigente y aplicable en materia de igualdad entre hombres y mujeres?

 **Bai / Sí** **Ez / No**



- Bere xede edo helburuak, aukeratzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolamendua edo estatutuak, emakumeen eta gizonen aukeraberdintasuneko printzipioaren kontrakoak al dira?

Sus fines u objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos, ¿son contrarios al principio de igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres?

Bai / Sí  
 Ez / No

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan dirulaguntzak jasotzeko aipatutako debekurik ba al dauka?

¿Incurrir en alguna de las causas de prohibición para la obtención de subvenciones, señaladas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre?

Bai / Sí  
 Ez / No

<b>DATUEN TRATAMENDUARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA</b> <b>Información básica sobre el tratamiento de datos</b>		
<b>ESKORIATZAKO UDALA</b> Kontuan hartuta zer xedatzen duten Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, eta Datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, jakinarazten dizugu formulario honetan jasotako datuen tratamendua konfidentziala izango dela eta ESKORIATZAKO UDALAREN erantzukizunpean egingo dela, helbidea: Fernando Eskoriatza plaza 1, 20540 Eskoriatza (Gipuzkoa).	<b>Arduradun a</b> <b>Responsable</b>	<b>ESKORIATZAKO UDALA - AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA</b> De conformidad con lo dispuesto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales; le informamos que los datos aportados en este formulario, serán susceptibles de tratamiento estrictamente confidencial bajo la responsabilidad de ESKORIATZAKO UDALA - AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA, con domicilio en Fernando Eskoriatza plaza 1. 20540 Eskoriatza (Gipuzkoa).
Laguntza kudeatzea eta baldintzak betetzen diren baloratzea. Laguntza beste erakunde batek ematen badu, dokumentuak prestatzen eta bidaltzen laguntzea.	<b>Xedea</b> <b>Finalidad</b>	Gestionar la ayuda y valorar el cumplimiento de los requisitos. En caso de que sea otra entidad la que otorgue la ayuda, asistir con la elaboración de los documentos y envío de los mismos.
Datuak tratatzeko legitimazioa zuri eskatzen zaizun eta eskaera honekin batera entregatzen duzun baimen libre, argi, informatu eta agerian oinarritzen da, hori kentzeko aukera eragotzi gabe.	<b>Legitimazioa</b> <b>Legitimación</b>	La legitimación para el tratamiento de los datos está basada en el consentimiento libre, expreso, informado e inequívoco que se le solicita, sin perjuicio de la posible retirada del mismo.
Interesdunak inprimaki honetan bertan emandakoak.	<b>Jatorria</b> <b>Procedencia</b>	Facilitado por la propia persona interesada en la presente instancia.
Datuak eskumenak dituzten administrazio publikoei jakinaraziko zaizkie. Beste entitate batzuei ere jakinaraziko zaizkie, zuzenean Udalak egiten ez dituen jarduerak egiteko. Jarduera horiek kontratu edo hitzarmen batean arautuko dira, eta horietan, datuak tratatzeko baldintzak ezarriko dira, araudia betetzen dela bermatzeko.	<b>Hartzaileak</b> <b>Entidades destinatarias</b>	Los datos se comunicarán a las Administraciones Públicas con Competencias. Y a otras entidades para el ejercicio de actividades que no se realicen directamente por el Ayuntamiento y que vendrán reguladas en un contrato o convenio, en los que se establecerán las condiciones del tratamiento de datos para asegurar el cumplimiento de la normativa.
Datuak eskuratzea, zuzentzea, ezabatzea, datuen tratamendua mugatzea eta aurkaratzea, eta datuak eramatea, bai eta informazio gehigarriaren azaldu diren beste eskubide batzuk ere. Eskubide horiek baliatu ditzakezu idatzi bat bidaliz ohiko postaz goian adierazitako Udalaren helbidera, nortasun-agiriaren fotokopiarekin batera, edo, telematikoki, esteka honen bidez: <a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/ZonaPrivada/SolicitudNueva.aspx?idayto=34&amp;idioma=es-ES&amp;TipoExpediente=ARCO&amp;Doc=5">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/ZonaPrivada/SolicitudNueva.aspx?idayto=34&amp;idioma=es-ES&amp;TipoExpediente=ARCO&amp;Doc=5</a>	<b>Eskubideak</b> <b>Derechos</b>	Acceso, rectificación, supresión, limitación, oposición y portabilidad, así como otros derechos explicados en la Información Adicional. Puede ejercerlos remitiendo un escrito por correo postal a la dirección arriba indicada y acompañándolo de fotocopia de documento de identidad acreditativo, o telemáticamente a través del siguiente enlace: <a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/ZonaPrivada/SolicitudNueva.aspx?idayto=34&amp;idioma=es-ES&amp;TipoExpediente=ARCO&amp;Doc=5">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/ZonaPrivada/SolicitudNueva.aspx?idayto=34&amp;idioma=es-ES&amp;TipoExpediente=ARCO&amp;Doc=5</a>
Datuen babesari buruzko informazio gehigarria gure pribatutasun-politikan kontsultatu dezakezu. <a href="http://eskoriatza.eus/udala/privatutasun-politika/">http://eskoriatza.eus/udala/privatutasun-politika/</a>	<b>Informazio gehigarria</b> <b>Información adicional</b>	Puede consultar la información adicional sobre Protección de Datos en nuestra Política de Privacidad. <a href="http://eskoriatza.eus/es/ayuntamiento/politica-de-privacidad/">http://eskoriatza.eus/es/ayuntamiento/politica-de-privacidad/</a>

Eskoriatza, «EskaerarenData\_LB»

**Sinadura bakar honekin sinatuta geratzen dira inprimaki honetako gainerako orriak ere. Eskatzaileak adierazten du adierazitako datuak egiazkoak direla, eta, beraz, bere gain hartzen du datuak oker egotearen erantzukizuna.** / La firma de esta hoja supone la del resto de las hojas del formulario. La persona solicitante declara que los datos expresados son ciertos, por lo que se hace responsable de las inexactitudes o errores que contenga.